



Ikasgaiaren programa

FILOSOFIAREN HISTORIA

0. ZER DA DOKUMENTU HAU?

Dokumentu honetan Fisika ikasgaiaren urteko plangintza azaltzen da. Bertan ikus daitezke:

- 1. Ikasgaiaren bidez lortu nahi diren HELBURUAK*
- 2. Ikasturtean zehar landuko diren EDUKIAK eta eduki bakoitza ikasturteko zein momentutan landuko den.*
- 3. Ikasgaia lantzeko erabiliko den METODOLOGIA, hau da, ikasleek jakintzak eskuratu, praktikan jarri eta integratzeko erabiliko den modua..*
- 4. Ikaslearen lana eta jarrera nola EBALUATUKO den, hau da, irakasleak nola baloratuko duen ikasleak bere jakintzak eta konpetentziak jaso dituela.*
- 5. Ikaslearen nota eraikitzeke KALIFIKAZIO SISTEMA, hau da, ikasturtean zehar ikasle bakoitzaren nota nola eraikiko den (hitzorduak eta jarduerak).*

*Ikasgaiaren nondik norako nagusiak jasotzen dituen dokumentua da hau, beraz. Ikaslearen lana bikaina izateko bidea zein den azaltzen da bertan. Ikasleraren **betebeharra** da, ondorioz, programazio hau ezagutzea eta bertan azaltzen denaren arabera lan egitea.*

*Era berean, ikasle moduan zuen **eskubideak** ezagutzeko eta ikasturtean zehar horren arabera nota on bat eraikitzen joateko aukerak baliatzeko jarraibideak topatuko dituzue.*

*Garrantzitsua da kontuan hartzea, emaitza bikainak **eguneroko lanaren** bidez ateratzen direla. Nota hobetzen joateko aukera ziurtatuta daukazue ebaluazio guztietan, baina era berean, egunerokoan **jarrera egokia** izatea, **ekina izatea, kritikotasunez eta autonomiaz jokatzeta**, eta ahal den heinean, **ikasgaiaz disfrutatzea** ezinbesteko bidelagunak izango dira ikasturtea arrakastaz amaitzeko.*

*Beraz, ikasgaiaren egitura eta funtzionamenduaren inguruan izan ditzakezun **zalantzen erantzun nagusiak** dokumentu honetan aurkituko dituzu.*

1. IKASGAIAREN HELBURUAK

H1. Arazoak identifikatu eta erralitatearen giza existentziaren zentzuari buruzko galderak egitea, adierazpen filosofikoen analisitik eta interpretaziotik abiatuz, auzi filosofikoen kontzientzia garatzeko

H2. Testu filosofikoen barne-koherentzia eta testuinguru historikoa aztertzea, testuok aurkeztutako arazoak nahiz konponbideak identifikatuz, dakartzaten auzi filosofikoak kokatzeko.

H3. Ekoizpen sinboliko adierazgarrienak ezagutu, norberaren ingurunearen alderdi sinboliko-komunikatiboa ikertuz eta aztertuz, Euskal Herriko esparru soziokulturala modu teoriko-praktikoan ezagutzeko.

H4. Pentsalari garrantzitsuenen ideia eta teoria filosofiko nagusiak ulertzea, funtsezko arazoen azterketa kritiko eta begirada hezkide batetik, filosofiak duen aberastasunaren eta eragin kultural, sozial eta historikoaren eta ondare komunari egiten dion ekarpenaren ikusmolde zorrotz eta kritikoa sortzeko.

H5. Elkarrizketa filosofikoan trebatzea, eta hori geurea ez bestelako ikuskerekin moduarrazionalean bat egiteko bidetzat hartzea, haren bidez errealitateari buruzko norberaren ikuspegia eraikitzeko.

H6. Lan intelektual autonomorako oinarritzkoak diren prozedurak erabiltzea: informazioa bilatzea eta aukeratzea, idatzizko iturrien eta iturri digitalen (Internet) bidez; lortutako informazioa kontrastatzea, aztertzea, sintetizatzea eta ebaluatzea, arazoak zorrotz aurkeztea ezaugarri duten eztabaida arrazionalen bidez; eta informazio hori gutzia jarduera filosofikoetan eta jarduerokin lotutako ekoizpenetan erabiltzea.

2. IKASGAIAREN EDUKIAK

1. BLOKEA> Aintzinako eta erdi Aroko filosofia

UD1 >Lehen filosofoak, sofistak, Sokrates eta Platon

UD2 >Aristoteles eta pentsamendu helenistikoa.

UD3 >Filosofia Erdi Aroan.

2. BLOKEA> Filosofia modernoa

UD4>Berpizkunde filosofia

UD5>Arrazionalismoa, enpirismoa
UD6> Filosofia Ilustrazioan

3. BLOKEA> Filosofia garaikidea

UD7> Filosofia XIX. mendean: idealismoa, materialismoa eta mugimendu sufragista
UD8>XIX. mendea II: Nietzsche eta herentzia postmoderno
UD9> Espainiako filosofia XX.mendean
UD10> Filosofia XX.mendean

Ikasgai honetako edukien gutxi gora beherako banaketa hurrengoa da:

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA	UNITATE DIDAKTIKOA									
	1	2	3	4	5	6				
1. Ebaluaketa	■	■	■							
2. Ebaluaketa				■	■	■				
3. Ebaluaketa							■	■	■	
SPS SAIOAK										■

3. IKASGAIAREN METODOLOGIA

Lanerako metodologiari dagokionez, hiru eratako lanketak izango dira nagusiki:

JAKINTZAK ESKURATZEKO SAIOAK

Irakasleak gidatutako saioak izango dira eta bertan edukiak, kontzeptuak landuko dira. Saio hauetarako, ikasleen parte hartze aktiboa ere beharrezkoa izango da.

JAKINTZAK PRAKTIKAN JARTZEKO SAIOAK

Problemen planteamenduan eta ebazpenean trebatzeko saioak izango dira, ikasle bakoitzak modu autonomoan lan eginda eta irakaslearen laguntzarekin. Tarteka, ariketen zuzenketarako, galderak planteatzeko... saioak egongo dira. Saio hauek aldeztu aurretik zehaztu eta adostuko dira ikasleekin egun horretarako zalantzak prest izan ditzaten.

INTEGRAZIO JARDUERAK

Taldeka zein bakarka, zeregin ezberdinak gauzatu beharko dira saio hauetan, ikasgaiaren edukiak erlazionatu eta bereziki filosofiak gizartean izan duen garapena, ekarpen nagusiak eta etorkizunera begirako erronkak landuko dira.

4. EBALUAZIOA

Ikasleak ebaluatzeko eta ikasgaiaren helburuak lortu direla ziurtatzeko bi froga nagusi egongo dira:

AZTERKETAK

Azterketen bitartez edukiak eta hauen ulermenarekin erlazionatutako konpetentziak (helburuak) ebaluatuko dira. Frogan ebaluatzen diren unitateei dagozkien prozesu filosofikoak eta lotutako afera eta eraginak ezagutzen direla eta disertazio baten forman egoki adierazten jakitea baloratuko da, informazioa egoki egituratuz, lotura koherenteak eginez eta beharrezko kontzeptu eta terminologia erabiliz.

Ebaluazio bakoitzeko bigarren azterketan, froga horrekin lotutako unitateei dagozkien testuen artetik iruzkin bat ere sartuko da. Helburua da, Iturri filosofikoak aztertzea, filosofiaren berreraikuntzarako ariketa gisa, bere prozesu historikoan kokatuz, testuinguru jakin baten parte moduan azalduz bere balioa aitortu eta gaur eguneko errealitatearekiko loturak identifikatuz.

Bai azterketak zein iruzkinak, kalifikaziorako errubrika bana izan dezakete. Ondorioz, ikasleak bere azterketaren indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzeko aukera izango du.

GELAKO JARDUNA (Jarrera)

Gelako jarduna ondorengo irizpideen arabera ebaluatuko da:

1. Euskara: Euskaraz bizitzeko eta hitz egiteko hautua egitea.
2. Parte hartzea
 - a. Jarrera pro-aktiboa izatea: Ikasteko nahia eta gogoia. Jarrera positiboa izatea, ulertzen ez dena galdetuz. Mugikorrik ez izatea, inguruko ikaskideak ez oztopatzea...
 - b. Errespetuz parte hartzea: Neurritz eta errespetuz parte hartzea eta azalpenak ez etetea. Teknologiako ikasgaiari Teknologiako apunteak izatea mahai gainean eta ez beste lan edo ikasgai batekoak.
 - c. Entzuten jakitea. Irakaslearen azalpenak, ikaskideen ekarpenak arretaz entzutea, gorputz lengoia eta jarrera zainduz.
3. Elkarlana eta elkarbizitza
 - a. Barne arautegiko eta elkarbizitzako arauak errespetatzea.
 - b. Ingurukoak laguntzea.
4. Autonomia

- a. Asistentzia: Ikasgaien justifikatu gabeko 5 hutsegite baino gutxiago behar dira azterketa egin ahal izateko. >5 hutsegiterekin zuzenean BERRESKURAPENA egin beharko da.
 - b. Ikasle bakoitzaren esku geratzen da hutsegiteen kontua eramatea. Ez da hutsegiteen gaineko abisurik emango.
 - c. Puntueltasuna: Irakaslea izango da klasean azkena sartzen. Berandu iristea hutsegite erdi gisa konputatuko da.
 - d. Lana: Denboraren probetxua, materiala ekartzea, ariketak ganoraz eta txukun egitea, etxeko lanak egitea...
 - e. Lanak epe barruan entregatzea: Epez kanpo entregatzen diren lanak ez dira jasoko, pisuzko justifikaziorik ezean.
5. Hezkidetza: Ikaskideekiko eta irakaslearekiko errespetua.

6. KALIFIKAZIO-SISTEMA

1 eta 2. HIRUHILEKOETAN nota ondorengo moduan eraikiko da.

- ARLOKO KONPETENTZIAK (EDUKIAK)
 - Kontrola edo Integrazio jardura (%30)
 - Azterketa (%60)
- GELAKO JARDUNA (%10)

3. HIRUHILEKOAN nota horrela eraikiko da:

- ARLOKO KONPETENTZIAK (EDUKIAK)
 - Kontrola (%50)
 - Azterketa (%40) * *OHIKO DEIALDIAN NEURTZEN DA*
- Gelako jarduna (%10)

3. ebaluazioak portaera berezia du: Kontrola 3. ebaluazioko azterketa-hitzorduan egiten da. 3. hiruhilekoari dagokion azterketa OHIKO DEIALDIAN egiten da eta hiru aukera posible zabaltzen dira:

OHIKO DEIALDIA

A AUKERA

- Ordura artekoa gaindituta daukanak: 3. ebaluazioko azterketa egin ahal izango du ohiko dialdian, azken unitateak neurtzeko eta nota osatzeko falta zaiion %40a eskuratu.

- Edukien atala gainditu egin behar da ikasgaia aprobatzeko (edukien atalean gutxienez 4,5) eta jarrerarekin batera 5era haldu behar da ikasgaia gainditzeko.
- Ikasturteko nota (OHIKOA) hiru ebaluazioen arteko batazbesteko aritmetikoa izango da.

1 EBALUAZIOA			2 EBALUAZIOA			3EBALUAZIOA		
1 AZTERKETA	2 AZTERKETA	JARRERA	1 AZTERKETA	2 AZTERKETA	JARRERA	1 AZTERKETA	2 AZTERKETA	JARRERA
%30	%60	%10	%30	%60	%10	%50	%40	%10

IKASTURTEKO NOTA: $(1 \text{ ebal}) + (2 \text{ ebal}) + (3 \text{ ebal}) / 3$
(Beti ere ebaluazio guztiak egon behar dira gaindituta batazbestekoa egiteko)

B AUKERA > USE EREDUA / NOTA HOBETZEKO AUKERA

- Ordura artekoa gaindituta dauzkanak USEko EREDUAN trebatzeko aukera dauka.
- Kasu honetan ohiko deialdian, USEko eredia jarraitzen duen azterketa bat egingo du, ikasturteko eduki guztiak ager daitezkeena (USEko baldintza berberen arabera). Azterketa honen emaitzak, 3. ebaluazioko %40a suposatuko du .
- Edukien atala gainditu egin behar da ikasgaia aprobatzeko (edukien atalean gutxienez 4,5) eta jarrerarekin batera 5era haldu behar da ikasgaia gainditzeko.
- Ostean, ikasturteko batazbestekoa aterako da. Batazbesteko hau USEko ereduko azterketatik ateratako notarekin hobetuko da beste puntu bateraino, beti ere emaitza 5etik gorakoa bada.

1 EBALUAZIOA			2 EBALUAZIOA			3 EBALUAZIOA		
1 AZTERKETA	2 AZTERKETA	JARRERA	1 AZTERKETA	2 AZTERKETA	JARRERA	1 AZTERKETA	USE AZTER.	JARRERA
%30	%60	%10	%30	%60	%10	%50	%40	%10

IKASTURTEKO NOTA: $(1 \text{ ebal} + 2 \text{ ebal} + 3 \text{ ebal})/3 + \text{USE AZTERKETA} \times 0.1$.
(Beti ere ebaluazio guztiak egon behar dira gaindituta batazbestekoa egiteko)

C AUKERA > ATALEN BERRESKURAPENAK

- Lehen bi ebaluazioetako bat, edo biak gainditu gabe dituen ikasleak ohiko deialdian pendiente dituen ebaluazioen berreskurapenak egin beharko ditu.
- 3. ebaluazioko azterketa ere egin beharko du.
- 3. ebaluazioko kontrola gainditu gabe badago, hirugarren ebaluazioa osorik berreskuratu beharko dela ulertzen da eta %90a jokatuko da azterketan.
- Nota hobetu ezker, emaitza berria hartuko da kontuan.

- Ebaluazio bakoitza berreskuratu ezker (edukien batzbestekoa 4,5etik gorakoa denean eta jarrerarekin batera 5era heltzen bada), ikasleari hiruren arteko batzbesteko aritmetikoa egingo zaio.

1 EBALUAZIOA		2 EBALUAZIOA		3EBALUAZIOA		
BERRESKURAPENA	JARRERA	BERRESKURAPENA	JARRERA	1 AZTERKETA	OHIKO AZT.	JARRERA
%90	%10	%90	%10	%50	%40/%90	%10

IKASTURTEKO NOTA: (1 ebal + 2 ebal + 3 ebal) / 3
(Beti ere ebaluazio guztiak egon behar dira gaindituta batzbestekoa egiteko)

EZ-OHIKO DEIALDIA

Ez-ohiko deialdian gainditu gabe geratu diren ebaluazioak berreskuratuko dira azterketa baten bitartez. Azterketa honek ebaluazioko edukien atalean %90a ordezkatu du, ikasleak aurretik daukan nota baino altuagoa denean.

IKASTURTEKO AMAIERAKO KALIFIKAZIOA

Ebaluazio guztiak gainditu behar dira batzbestekoa egiteko. Ez da ikasturtea gainditzat emango ebaluazioren bat gainditu gabe geratu baldin bada.

BERRESKURAPENAK

Hiruhilekoak atalka berreskuratzeo aukera egongo da. Berreskurapenak arratsaldean egingo dira, ordu lektiboetatik kanpo. Hirugarren ebaluaketaren berreskurapena zuzenean OHIKO DEIALDIAN izango da. Nota igotzeko aukera berreskurapenetako egunetan izango da.

NOTA IGOERAK

Ikasturteko nota hobetzeko ebaluazio bakoitzean batez besteko nota 0,33 puntutan hobetzeko aukera eskainiko da. Ikasleak liburu bat irakurri beharko du, betiere irakasleak proposatutakoa. Ikasleek hari buruz egindako galdera batzuei erantzun beharko die eta frogatu ordu lektiboetatik kanpo izango da. Honez gain, ebaluaketa guztietan, azterketetan, integrazio jardura bat ere eskainiko da nota igotzeko.